EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EUSKADIN

# JARDUERA TXOSTENA

# 2019KO EKITALDIA

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Txosten honek jasotzen ditu Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programaren Idazkaritza Tekniko gisa Ihobek gauzatu dituen jarduerak, eta baita Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erosketa berdeak 2019ko ekitaldian izandako emaitzak ere.

Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea 36 – 6. solairua
48011 Bilbo

www.euskadi.eus
www.ingurumena.eus
www.ihobe.eus

compra.verde@ihobe.eus

2020ko apirila

**1 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXETATZE MAILA EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN LIZITAZIOETAN 2**

1.1 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXERTATZE MAILA OROKORRA 3

1.2 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXERTATZE MAILA ERAKUNDE PUBLIKO MOTAREN ARABERA 4

1.3 EKPB 2020 PROGRAMAREN HELBURUEN BETETZE MAILA 5

1.4 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN JATORRIA 7

**2 EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020RAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA 8**

**3 PROGRAMAREN LERRO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA 10**

**4 ERANSKINAK 24**

I. ERANSKINA
INGURUMEN-IRIZPIDEEK LIZITAZIOETAN DUTEN TXERTATZE MAILA, ERAKUNDE PUBLIKO MOTAREN ARABERA BANAKATUTA 24

II. ERANSKINA
PROGRAMAREN TRAKZIO-TALDEAREN PARTAIDE DIREN SAILAK ETA SOZIETATEAK 25

III. ERANSKINA
2019KO AMAIERARA ARTE PROGRAMARI ATXIKITAKO ERAKUNDEAK 25

IV. ERANSKINA
2019KO JARDUEREN LABURPENA 26

V. ERANSKINA
2016, 2017, 2018 ETA 2019KO JARDUEREN LABURPENA 28

# 1 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXETATZE MAILA EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN LIZITAZIOETAN

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programak (EKPB 2020 Programa) helburu jakin batzuk ezarri ditu ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan txertatzeari dagokionez, eta helburu horien betetze maila urtero neurtu behar da.

2018az geroztik erabaki da Euskadiko kontratazio elektronikoaren plataforma erabiltzea (**http://www.contratacion.euskadi.eus**, zehazki Revascon erregistroa) erosketa berdearen alorreko konpromisoen jarraipena egiteko; izan ere, plataforma horrek ahalbidetzen du identifikatzea zer pleguk dituzten txertatuta jasangarritasun-klausulak –geroago komentatuko diren muga batzuk gorabehera-.

**JARRAIAN, TRESNA HONEN BIDEZ ESKURATUTAKO DATUAK AURKEZTEN DIRA, ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ:**

- **INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK, EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOARENTZAT,** GLOBALKI.
- **INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK,** ERAKUNDE PUBLIKO MOTA BAKOITZAREN ARABERA; SAILKAPENAK BEREIZTEN DITU, HALABER, EKPB 2020 PROGRAMAREN MENDE DAUDEN ERAKUNDEAK (EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK) ETA EUREN BORONDATEZ PROGRAMAREKIN KONPROMETITU DIREN ERAKUNDEAK (PROGRAMARI ATXIKITAKO ERAKUNDEAK).
- **INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK,** EKPB 2020 PROGRAMAN **LEHENETSITAKO PRODUKTU MULTZOEN ARABERA.**
- **ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN** JATORRIA.

## 1.1 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXERTATZE MAILA OROKORRA

Revasconetik 2019ko ekitaldirako ateratako datuen arabera:

| | Lizitazioak GUZTIRA | INGURUMEN-IRIZPIDEEKIN | Erosketa berdearen maila (%) |
|---|---|---|---|
| Lizitazio kopurua | 5.829 | 1.407 | 24 |
| Zenbateko ekonomikoa (EUR) | 2.005.115.851,5 | 449.295.097,8 | 22 |

ITURRIA: Datuen iturria: Euskadiko kontratazio plataformaren "Kontratatzailearen profila" atala (http://contratacion.euskadi.eus). Garaia: 2019/1/1 – 2019/12/31

Kontuan hartu behar da emaitza horiek erlatiboak direla, zeren Euskadiko plataformak ez baitu euskal sektore publiko osoa barne hartzen; izan ere, erakunde publiko batzuk ez daude Euskadiko kontratatzailearen profilean, kontratazio elektronikoko plataforma propioak edo plataforma estatala erabiltzen dituztelako. Gainera, erakunde publiko batzuek espediente-kudeatzaileak erabiltzen dituzte informazioa plataforman sartzeko, baina kudeatzaile horiek ez daude egokituta identifikatzeko ea lizitazioak barne hartzen duen ingurumen-irizpiderik; horregatik, ingurumen-irizpideak dituzten lizitazio batzuk ez daude islatuta emaitzetan, eta beste batzuetan ez dira ondo identifikatzen ingurumen-irizpideak dituzten pleguak, dela aldagai hori gutxiegi nabarmentzen delako –hau da, arduradunak ez ditu irizpideak izaera horrekin plataforman identifikatzen, alderdi horri dagokion eremua ez delako nahitaez bete behar-, dela gehiegi nabarmentzen delako –hau da, ingurumen irizpideak markatzen dira, baina pleguak ez du legezko betebeharretatik harago doan ingurumen-irizpiderik benetan sartzen-.

**EROSKETA BERDEAREN MAILA GLOBALA** HONAKO HAU IZAN DA:

**% 24,** LIZITAZIO KOPURUARI DAGOKIONEZ

**% 22,** BOLUMEN EKONOMIKOARI DAGOKIONEZ

Programari atxikitako bi erakunderen kasuan, euren espedienteak berraztertu zituzten eta ikusi zuten ingurumen-irizpideak zituzten lizitazioen erdiak baino gehiago ez zirela horrela markatu Revasconen, eta, hortaz, ingurumen-irizpideentzat adierazten zen txertatze maila benetakoa baino txikiagoa zen. Bi erakunde horientzat berraztertu diren ingurumen-irizpideen txertatze mailak kontsideratzen badira, haien erosketa berdearen maila (bolumen ekonomikoan neurtuta) % 23tik % 37ra eta % 15etik % 22ra pasatzen da, hurrenez hurren, eta euskal sektore publikoaren osoko bolumenak gora egiten du, % 22tik % 23ra pasatuz.

Aipatzekoa da, halaber, kalkulatutako ehuneko horiek lizitazioen guztizkoari buruzkoa direla, kontratuaren xedea zeinahi delarik ere, eta lizitazio jakin batzuek maila handiagoan txeratzen dituztela ingurumen-irizpideak beste batzuek baino.

Datuen desbideratze horietako batzuk minimizatzeko xedez, 2020. urtean Ihobek eta Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak elkarrekin lan egingo dute plataformaren bidezko datuen bilketa automatikoa hobetzeko, horren bitartez saihesteko ingurumen-irizpideak ondo txertatuta duten baldintza-orriak estatistiketatik kanpo geratzea.

## 1.2 INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXERTATZE MAILA ERAKUNDE PUBLIKO MOTAREN ARABERA

Datuak erakunde publiko motaren[1] arabera aztertzen badira, ikus daiteke ingurumen-irizpideen txertatze maila handiena –ehunekotan neurtuta- duten erakundeak "BESTE BATZUK"[2] sailean sartutakoak direla; haien ostean, tokiko eta foru erakundeak datoz, eta azken postuan Eusko Jaurlaritza dago.

| Erakunde publiko mota | Erosketa berdearen % (kopurua) | Erosketa berdearen % (EUR) |
|---|---|---|
| Beste batzuk | %38 | %58 |
| Tokiko erakundeak eta haien sektore publikoa | %29 | %29 |
| Foru erakundeak eta haien sektore publikoa | %17 | %24 |
| Eusko Jaurlaritza eta haren sektore publikoa | %16 | %12 |

ITURRIA: Datuen iturria: Euskadiko kontratazio plataformaren "Kontratatzailearen profila" atala (http://www.contratacion.euskadi.eus).
Garaia: 2019/1/1 – 2019/12/31

Beste alde batetik, EKPB 2020 Programari atxikitako erakundeen ingurumen-irizpideen txertatze maila aztertzen bada (Euskadiko plataformaren bidez lizitatzen duten erakundeak) eta sektore publikoko gainerako erakundeen mailarekin alderatzen bada, ikus daiteke Atxikitako Erakundeen txertatze maila sektore publikoaren gainerako erakundeena baino askoz ere handiagoa dela; horrek erakusten du atxikitako erakundeek konpromiso eta dinamismo handiz jokatzen dutela ingurumen-kontsiderazioak euren kontratazioan txertatzerakoan; eta ikusten da, halaber, atxikimendu horrek motibazioa eta laguntza ematen dizkiela ingurumen-irizpideak haien lizitazioetan sartzeko.

**INGURUMEN-IRIZPIDEEN TXERTATZE MAILARI DAGOKIONEZ, ATXIKITAKO ERAKUNDEENA** EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO **GAINERAKO ERAKUNDEENA BAINO BI ALDIZ HANDIAGOA DA** (BOLUMEN EKONOMIKOAN NEURTUTA), ETA OSO HURBIL DAGO 2020RAKO EZARRITAKO HELBURUTIK, HOTS, % 50ETIK.

1 Ikus I. Eranskina, erakunde publiko motaren arabera desagregatutako datu gehiago ikusteko.

2 Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektore publikoaren partaidetza duten erakundeak edo eskualde, probintzia eta/edo toki mailako beste erakunde publiko batzuk, publikoak edo ez –hala nola ikerketa-zentroak, ur eta garraio partzuergoak, batzar-jauregi eta museoak, askotarikoa fundazioak, eta abar.-, eta baita EAEko Sektore Publikokoak ez diren baina berarekin kontabilitate aldetik kontsolidatzen diren erakundeak ere –adibidez: Eusko Legebiltzarra edo Euskal Herriko Unibertsitatea-.

| Erakunde publiko mota | Erosketa berdearen % (kopurua) | Erosketa berdearen % (EUR) |
|---|---|---|
| Atxikitako erakundeak | %39 | %46 |
| Sektore publikoko gainerako erakundeak | %21 | %19 |

ITURRIA: Datuen iturria: Euskadiko kontratazio plataformaren "Kontratatzailearen profila" atala (http://www.contratacion.euskadi.eus).
Garaia: 2019/1/1 – 2019/12/31

Atxikitako erakundeen datuak erreferentziatzat hartzen badira baina euren espedienteak berraztertu zituzten bi erakundeen informazioarekin zuzenduta, orduan atxikitako erakundeen ingurumen-irizpideen txertatze maila honako hau izan zen 2019an: % 41 (lizitazio kopuruaren ikuspuntutik) eta % 49 (bolumen ekonomikoaren ikuspuntutik).

Horregatik, 2020. urtean ahaleginak zuzenduko dira Programaren aldeko atxikimendua sustatzera eta Eusko Jaurlaritzarekin lan egitera, EKPB 2020 Programaren helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko.

## 1.3 EKPB 2020 PROGRAMAREN HELBURUEN BETETZE MAILA

EKPB 2020 Programak 2020rako ezartzen duen helburua honako hau da: erosketa berdea % 50era iristea lehenetsitako 20 produktu, obra eta zerbitzu multzoetan.

Revasconen datuak abiapuntutzat hartuta, eta lizitazioak kontratuen xedearen arabera sailkatuz, ikus daiteke ingurumen-irizpideen txertatze maila asko aldatzen dela multzo batetik bestera:

**HALA, % 50ERA IRISTEKO HELBURUA MULTZO BATZUETAN LORTU DA;**

ADIBIDEZ: PAPERA, ERAIKINEN GARBIKETA, AUTOBUS GARRAIOA ETA LOREZAINTZA (BOLUMEN EKONOMIKOAN NEURTUTA)

**BESTE BATZUETAN, BERRIZ, BIDE LUZEA EGIN BEHAR DA ORAINDIK ERE,**

ETA AHALEGINAK BATU BEHARKO DIRA DAGOZKIEN LIZITAZIOETAN ETA/EDO MERKATUETAN ALDAKETAK BULTZATZEKO –ADIBIDEZ: EHUNGINTZAKO PRODUKTUAK, MEZULARITZA, BIDAIAK EDO ORDENAGAILUEN EROSKETA ETA ELEKTRIZITATEA.

| EKPB 2020 Programan lehenetsitako produktu multzoa | Erosketa berdearen % (kopurua) | Erosketa berdearen % (EUR) |
|---|---|---|
| Papera (eta bulegoko materiala) | % 55 | % 85 |
| Eraikinen garbiketa | % 44 | % 77 |
| Autobus garraioa | % 20 | % 69 |
| Lorezaintza | % 46 | % 61 |
| Ibilgailuak | % 50 | % 46 |
| Elikagaiak | % 49 | % 40 |
| Altzariak | % 22 | % 32 |
| Argitalpenak eta inprimaketa | % 10 | % 31 |
| Ekitaldiak | % 23 | % 29 |
| Obrak (eraikuntza, urbanizazioa, obra zibila eta beste batzuk) | % 27 | % 28 |
| Laneko arropa | % 58 | % 27 |
| Inprimatze-ekipoak | % 31 | % 23 |
| Bide-garbiketa eta/edo hondakinen bilketa | % 48 | % 20 |
| Elektrizitatea | % 35 | % 19 |
| Bidaiak | % 15 | % 6 |
| Ordenagailuak | % 9 | % 3 |
| Mezularitza | % 16 | % 1 |
| Ehungintzako beste produktu batzuk | % 0 | % 0 |
| **GUZTIRA** | **% 30** | **% 32** |

ITURRIA: Datuen iturria: Euskadiko kontratazio plataformaren "Kontratatzailearen profila" atala (http://www.contratacion.euskadi.eus).
Garaia: 2019/1/1 – 2019/12/31

Emaitza horiek, pleguetako azterketa zehatzagoa, eta atxikitako erakundeek 2020rako dituzten erosketa berdeko ekintza-planak oinarritzat hartuta, Ihobek emaitzak hobetzeko jarduerak abiatuko ditu, batez ere sostengu berezia behar duten produktu, obra eta zerbitzu multzoetan.

## 1.4 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN JATORRIA

Bukatzeko, 2019ko lizitazioetako enpresa adjudikaziodunen jatorria ere aztertu da. Horren helburua da ikustea noraino aprobetxatzen duten kontratazio publikoa eskualdeko enpresek eta zer-nolako eragina duten –edo ez duten- ingurumen-klausulek prozesu horretan.

2019an ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako batean (Araba, Bizkaia edo Gipuzkoan) kokatutako enpresek lizitazioen % 71 eskuratu dutela, kontratazio bolumenaren % 58era iritsiz.

Emaitza horiek hobeak dira ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioetarako.

**HALA, EUSKAL ENPRESAK ONDO PRESTATUTA DAUDE INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEI AURRE EGITEKO,** ZEREN HONAKO LIZITAZIO HAUEN ADJUDIKAZIODUNAK BAITIRA:

INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEN **% 72,** HAU DA,

INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEN BOLUMEN EKONOMIKOAREN **% 80.**

| Enpresa adjudikaziodunen jatorria | Euskadikoak | Beste probintzia batzuetakoak | Euskal enpresen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Lizitazioen osoko kopurua | 4.145 | 1.684 | % 71 |
| Lizitazio guztien bolumen ekonomikoa | 836.476.155,79 | 1.168.639.695,69 | % 58 |
| Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kopurua | 1.007 | 400 | % 72 |
| Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen bolumen ekonomikoa | 357.537.918,26 | 91.757.179,57 | % 80 |

ITURRIA: Datuen iturria: Euskadiko kontratazio plataformaren "Kontratatzailearen profila" atala (http://www.contratacion.euskadi.eus).
Garaia: 2019/1/1 – 2019/12/31

# 2 EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020RAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA

2019an zenbait ekintza gauzatu dira Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programaren aldeko atxikimendua sustatzeko eta Trakzio-taldea eta jadanik atxikita dagoen erakunde taldea mobilizatzeko:

- **Trakzio-taldearekin** –beraren partaideak Eusko Jaurlaritzaren Sail eta sozietate publiko nagusien ordezkariak dira (ikus II. Eranskina)- bilera bat egin zen ekainean, taldeak berak eta beraren lidergo-ahalmenak duten balioa nabarmentzeko eta taldeko kide bakoitzaren konpromiso konkretuei buruz hausnartzeko. Horren ostean, Ihobe Trakzio-taldeko kide batzuekin bildu da, horietako bakoitzarekin modu indibidualean aurre egiten jarraitzeko.

- **Atxikitako Erakundeekin** (ikus III. Eranskina) bi bilera egin dira. Bata urtearen hasieran, 2019ko lan-plana aberasteko eta beraren beharrei egokitzeko, taldearen antolaketa eta funtzionamendu eredua adosteko, eta aurrerapenak konpartitzeko; bestea irailean, Programaren eta erakundeen oraingo egora konpartitzeko eta erosketa berdeko urteko planak prestatzeko eredua modu bateratuan hobetzeko.

- "**Euskadin erosketa publiko berdearekin bat egiteko gakoak**" izeneko dokumentua prestatu da, bai Programaren aldeko atxikimendua sutatzeko eta bai argudioak eskaintzeko jadanik atxikita dauden erakundeei, hartutako konpromisoari eutsi diezaioten. Horretarako, Programak azpimarratzen du zertarako den Programa, zer onura dakartzan berari atxikitzeak eta zer urrats egin behar diren atxikimendua egiteko. Dokumentuak harrera ona izan du, zeren 1310 aldiz deskargatu baita urrian argitaratu zenetik abenduaren amaierara arte.

- **Lehentasunezko euskal erakunde publikoen** zerrenda bat prestatu da haien atxikimendua bilatzeko, erosketa berdearen alorrean dihardutelako. Erakunde horiek identifikatzeko, abiapuntutzat hartu da Euskadiko kontratazio plataforma elektronikoan argitaratutako pleguen eta Ihobek ingurumen-irizpideak txertatzeari buruz jaso dituen kontsulten azterketa.

- 2019ko azaroan, bi **bilera** antolatu dira (bata Bizkaian eta bestea Gipuzkoan) identifikatutako erakunde publiko horientzat; helburua zen Programaren helburuak bertatik bertara azaltzea eta berari atxikitzera animatzea. Bilerek oso harrera ona izan zuten, kontaktatutako erakunde ia guztiek parte hartu baitzuten (guztira 45 erakunde), eta baliagarriak izan ziren, gainera, bileren erakunde anfitrioien balioa nabarmentzeko –Programari atxikitako erakundeak-. Bilera horien lehenengo emaitza izan da honako erakunde hauek atxiki zaizkiola Programari: Euskalduna Jauregia, Barakaldoko Udala eta Bergarako Udala, 2019ko ekitaldian; eta UPV/EHUren Bizkaiko Campusa, Zamudioko Udala eta Gorebaialdeko Eskualdea 2020ko ekitaldiaren lehenengo hilabetean.

- **Atxikimendurako kita eguneratu** da –atxikimenduarekin hartutako konpromisoak gauzatzeko xedez erakundeei ematen zaien materiala da-. Eguneraketa egiteko, abiapuntutzat hartu da atxikitako erakundeekin -2019ko irailean- izandako bileran eurek egin zituzten ekarpenak.

Urtean zehar atxikitako erakunde berriak honako hauek dira:

- Eusko Legebiltzarra
- Euskalduna Jauregia
- Barakaldoko Udala
- Bergarako Udala

## 2019AN, 35 ERAKUNDE ZEUDEN PROGRAMARI ATXIKITA

35 erakunde horietatik, 34k kontratazio ahalmena dute.

Banaketa geografikoaren arabera, atxikitako erakundeen kopuru handiena Gipuzkoan dago (% 38), eta ondoren Bizkaian (% 29) eta Araban (% 9). Gainerako erakundeak (% 24) Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoak edo Euskal Autonomia Erkidego osoa eremutzat hartzen duten beste erakunde batzuk dira.




Administrazio motari dagokionez, Programari atxikitako erakundeak honela banatzen dira, gutxi gorabehera:

- heren bat Eusko Jaurlaritzaren erakundeak dira (adibidez: EITB, Visesa eta Ihobe);
- beste heren bat Industrialdeak dira; eta
- hirugarren herena udalak, mankomunitateak, Aldundi bat (Gipuzkoa) eta bestelako erakundeak dira (hala nola Eusko Legebiltzarra, Mutualia eta Euskalduna Jauregia).




2019an, atxikitako erakundeen artean ez zuen ia inork ere aurkeztu bere EKPBaren urteko plana, euren lizitazioetan inplementatzen jarraitu arren. Horregatik, planak prestatzeko eta horietaz informatzeko prozedura berraztertu zen haiekin, prozedura hori sinplifikatzeko eta prozesua 2020ari begira errazteko.

# 3 PROGRAMAREN LERRO ESTRATEGIKOEN HEDAPENA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programa 5 LERRO ESTRATEGIKO eta 19 ekintzaren bidez hedatzen da. Lerro estrategikoak honako hauek dira:

**1.LE: Inplementaziorako edukia eta tresnak**

**2.LE: Kontratazio-prozeduretan integratzea**

**3.LE: Prestakuntza eta trebakuntza**

**4.LE: Merkatuarekin koordinatzea**

**5.LE: Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana**

Jarraian, Programatik 2019an gauzatu diren jarduerak jasotzen dira, bakoitzaren betetze maila adieraziz.

IV. Eranskinean, 2019ko ekintzak jasotzen dira laburbilduta;
V. Eranskinean, berriz, plana 2016an onartu zenetik 2019ko amaierara arte gauzatutako jarduera guztiak ageri dira.



# LERRO ESTRATEGIKO BAKOITZERAKO GARATUTAKO JARDUERAK

## 1. LERRO ESTRATEGIKOA
## INPLEMENTAZIORAKO EDUKIAK ETA TRESNAK

### 1. JARDUERA

### Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu praktikoa eguneratzea eta osatzea

**1. EKINTZA:** irizpide eguneratuak argitaratzea 7 produktu/zerbitzu kategoriatarako.

2019an, aurreko urtean eguneratutako irizpideak argitaratu dira Ihoberen webguneko erosketa eta kontratazio berdearen irizpideen atalean (**https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak**), haien berrikuspena eta itzulpena egin ondoren.

**2. EKINTZA:** “FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera” izeneko dokumentua.

FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera hobeto ulertzeko xedez, Ihobek dokumentu argigarri hau argitaratu du. Bertan, modu laburrean aurkezten ditu bi ziurtagiriak eta ziurtatutako produktuaren arabera dauden desberdintasunak, kontratazioan nola erabil daitezkeen azaltzeaz batera: **https://www.ihobe.eus/argitalpenak-fsc-eta-pefc-ziurtagiriak-eta-kontratazio-publikoan-duten-erabilera**.







**3. EKINTZA:** “Ingurumen-ziurtapenak erosketa eta kontratazio publikoan erabiltzeko gida praktikoa”

Ingurumen-ziurtapenen unibertso zabala eta kontratazio publikoan duten erabilera argitzeko xedez, Ihobek gida bat prestatu du ekoetiketa eta ingurumen-kudeaketako sistema nagusiak eta kontratazioan izan dezaketen erabilera ulertzeko. Gida argitaratzearen zain dago.

**4. EKINTZA:** "Ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzerakoan egin ohi diren okerrak".
Ingurumen-irizpideak kontratazio-agirietan sartzerakoan egiten diren oker nagusiak ulertzeko eta horiek saihestu ahal izateko, Ihobek oker horiek azaltzen dituen dokumentu bat prestatu du 2019an; bertan, adibide konkretuak eta haien zuzenketak jasotzen dira, kontratazio berdea eta kontratazio orokorra hobetzeko xedez. Dokumentua argitaratzearen zain dago.

| 1. JARDUERA | Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu praktikoa eguneratzea eta osatzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Programan lehenetsitako produktu eta zerbitzu multzoen artetik irizpide berraztertuak eta/edo garatuak dituztenak (%). |
| | % 100, 2018ko horizontea erreferentziatzat hartuta.<br>% 100, 2020ko horizontea erreferentziatzat hartuta. |

## 2. JARDUERA

## Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduzko pleguen proposamenak egitea

**1. EKINTZA:** adibidetzat har daitezkeen 2 plegu identifikatzea.
2019an, administrazio publikoen hainbat plegu aztertu dira eta beste administrazio batzuentzat eredugarri izan litezkeenak identifikatu dira (horretarako, abiapuntutzat hartu dira ingurumen-irizpideak txertatzeari buruz Ihobek jaso dituen eskariak edo administrazioek zuzenean emandako informazioa); horietatik, kontsideratu da bi plegu erreplikatzeko modukoak izan litezkeela, eta, hortaz, Ihoberen webguneko erosketa berdearen irizpideen orrialdean jarri dira (**https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak**).

| 2. JARDUERA | Ereduzko pleguen proposamenak egitea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Programan lehenetsitako multzoen artean, ereduzko plegua eskuragarri dutenak (%). |
| | % 35, 2020ko horizontea erreferentziatzat hartuta. |

## 3. JARDUERA

## Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea

**1. EKINTZA:** bizi-zikloaren kostuak erosketa publikoan aztertzeko lan-talde pilotua.
2019an, bizi-zikloaren kostuak ordenagailu eta monitoreen erosketa eta kontratazioan aztertzen dituen talde pilotuak bilera bat izan zuen, eta Ihobek konpromiso bat hartu zuen ordenagailuen hornitzaileentzat egingo duen hurrengo homologazioaren lizitaziorako, alegia, bizi-zikloaren kostuak adjudikazioan aplikatzea (zehazki, Europako Batzordeak garatutako tresna erabiliz).

**2. EKINTZA:** Europako Batzordearen bizi-zikloaren kostuen tresnak itzultzea.

Europako Batasunak bizi-zikloaren kostuei buruz prestatu dituen 5 tresnetatik, Ihobek 3 tresnaren itzulpena enkargatu du (bai kalkulu-orriak eta bai haiekin batera datozen gidak), hain zuzen ere ordenagailu eta monitoreei, argiteria publikoari eta barne-argiteriari buruzkoak. Espero da tresnak eskuragarria egotea 2020ko lehen seihilekoan.




**3. EKINTZA:** BILERA-JARDUNALDIA: Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan sartzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiak.

2019ko maiatzean, bilera-jardunaldi bat egin zen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarekin, gai hauek jorratzeko: bizi-zikloen kostuak kontratazio publikoaren alorrean; eta horien erabileran kontuan hartu beharreko alderdiak, bai orokorrean eta bai ingurumenaren ikuspegitik.

**4. EKINTZA:** Ekonomia Zirkularrerako Erosketa Publikoa.

Erosketa publiko berdeari eta Ekonomia Zirkularrari buruzko txosten bat prestatu da. Beraren helburua da aztertzea nola laguntzen dion erosketa publiko berdearen oraingo hedapenak lehentasun politiko horri eta nola nabarmendu daitekeen erosketa publikotik ekonomia zirkularrari egiten zaizkion ekarpenen balioa.




**5. EKINTZA:** Klima-aldaketaren aurkako borrokarako Erosketa Publikoa .

Aurreko ekintzarekin batera, beste txosten bat egin da modu paraleloan, erosketa publiko berdea eta Klima-aldaketa aztertzeko. Beraren helburua da aztertzea nola kontsideratzen ari den orain politika hori erosketa publiko berdearen oraingo hedapenean eta nola nabarmendu daitekeen erosketa publikotik klima-aldaketaren aurkako borrokari egiten zaizkion ekarpenen balioa.

**6. EKINTZA:** Erosketa Berdea URBAN Klima proiektuan.

Euskadirako Klima-ekintza/Urban Klima Life proiektu integratuaren baitan (**https://urbanklima2050.eu/es/**) txertatu da ingurumen-irizpideak sartzeko beharra, proiektuaren baitan garatzen diren lizitazio guztien diseinu eta gauzapenean (datozen 3 urteetan gauzatuko diren lizitazioetan).




| 3. JARDUERA | Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea | |
|---|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Egindako eta dokumentatutako jarduera pilotuen kopurua (urtez urte eta metatuak). | |
| | **2019** | Bizi-zikloaren Kostuei buruzko talde pilotu bat jardunean ari da. |
| | **METATUA** | 13 jarduera gauzatu dira, baina guztiak ez dira zehazki proiektu pilotuetan sartzen. |

## 4. JARDUERA

## Laguntza teknikoa ematea

**1. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak txertatzeko 130 jarduera gauzatu dira.

Euskal administrazioari laguntzeko 130 jarduera gauzatu dira, honela banatuta: 80 eskari ingurumen-irizpideak pleguetan txertatzeko; 30 kontsulta eta 18 aholku jarraibide-dokumentuak edo kontratazIorako oinarrien dokumentuak egokitzeko, geroago ziurtatzeko ingurumen-irizpideak txertatzen direla ondorengo lizitazioetan.

Laguntzarako eskari horiek sektore publikoko 51 erakundek egin dituzte, guztira. Jasotako kontsulta guztietatik, 7 kontsulta Eusko Jaurlaritzako Sailek egin dituzte, 16 kontsulta Eusko Jaurlaritzaren erakunde edo sozietateek, 4 kontsulta Foru Aldundiek, 22 kontsulta tokiko erakundeek eta 2 kontsulta beste erakunde batzuek.

| 4. JARDUERA | Laguntza teknikoa ematea | |
|---|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Jasotako eskari kopurua eta erantzunen %. | |
| | **2019** | 80 eskari jaso dira ingurumen-irizpideak pleguetan txertatzeko.<br>32 kontsulta.<br>Oinarrizko dokumentuen edo kontratazio-jarraibideen<br>18 egokitzapen.<br>**GUZTIRA: 130 eskari jaso dira eta % 100ari erantzun zaio**. |
| | **METATUA** | **386 laguntza-eskari jaso dira.**<br>(59 eskari 2016an + 45 eskari 2017an + 152 eskari 2018an + 130 eskari 2019an).<br>**Eta % 100ari erantzun zaio.** |

## 5. JARDUERA

## Produktu eta zerbitzuetarako garatutako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea

Jarduera hau bukatuta dago jadanik; izan ere, zuzeneko erosketako fitxa bereziki behar zuten produktu eta zerbitzuen kategoria guztiek badute horrelako fitxa; eta fitxa hori erregulartasunez eguneratzen da, 1. Jardueraren elementu gisa.

| 5. JARDUERA | Produktu eta zerbitzuetarako garatutako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Gidaliburuko multzoetatik, zuzeneko erosketarako eta/edo erosketa pribaturako fitxak egin zaizkien multzoak (%). |
| | % 100 (lehenetsitako 20 produktuetako 13).<br>Erosketa publikorako jadanik prestatu diren 13 fitxekin kontsideratzen da zuzeneko erosketa fitxa izan dezaketen kategorien % 100ari heldu zaiola. |

## 2.LERRO ESTRATEGIKOA
# KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRATZEA

## 6. JARDUERA

### Dauden kontratazio-eredu eta -tresnak berrikustea

**1. EKINTZA:** Euskadiko kontratazio publikoaren plataforma aldatzeko proposamena.

Ingurumen-irizpideek kontratazio publikoan duten txertatze mailaren jarraipena hobetzeko, zenbait proposamen bidali zaizkio Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, honek aztertu eta 2020an txertatu ditzan, plataforma elektronikoan aurreikusitako beste aldaketa batzuekin batera.




| 6. JARDUERA | Dauden kontratazio-eredu eta -tresnak berrikustea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Jarduera gauzatu duten administrazio parte-hartzaileen kopurua eta %. |
| | GUZTIRA: Ekintza bat gauzatu da.<br>2020an, gai honen jarraipen espezifiko bat egingo da Programari atxikitako erakundeen artean, jarduera honen adierazlea lortzeko. |

## 7. JARDUERA

### Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea

Ez da inolako ekintza konkreturik gauzatu honen inguruan.

| 7. JARDUERA | Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Erosketa eta kontratazio publiko berderako prozedurak dituzten administrazio parte-hartzaileak (kopurua eta %). |
| | - |

## 8. JARDUERA

### Erosketa publiko berde zentralizatua sustatzea

**1. EKINTZA:** Ingurumen-irizpideak erosketa-zentralen lizitazioetan txertatzea.

Ihobetik sostengua eman zaio, horretarako eskariari erantzunez (4. Jardueraren zati gisa), ingurumen-irizpideak erosketa-zentralek 2019an plazaratutako lizitazio batzuetan txertatzeari. Gainera, zentral gehienek ingurumen-irizpideak txertatu ohi dituzte jadanik euren lizitazioetan.

| 8. JARDUERA | Erosketa publiko berde zentralizatua sustatzea |
| --- | --- |
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Egindako erosketa bateratuak sustatzeko ekintzen kopurua. |
| | Eskariari erantzunez, laguntza eman zaie oraingo Zentralei ingurumen-irizpideak euren lizitazioetan txertatzeko. |
| | Erosketa zentralizatuen jarduerak eta/edo ezarritako erosketa-zentralak. |
| | - |

## 3. LERRO ESTRATEGIKOA
# PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

### 9. JARDUERA

### Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea

**1. EKINTZA:** 8 jardunaldi tekniko antolatzea.[3]

Urte honetan, ondoren aipatutako prestakuntza-jardunaldiak egin ziren edo haietan parte hartu zen:

- Ingurumen-irizpideak Lanbide Heziketako Zentroen kontratazio eta erosketetan txertatzea (2019/01/25).
- 2 tailer ingurumen-irizpideak kontratazio publikoetan txertatzeko. HORNIDURAK eta ZERBITZUAK (Bizkaia), Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera (2019/06/12).
- 2 tailer ingurumen-irizpideak kontratazio publikoetan txertatzeko. HORNIDURAK eta ZERBITZUAK (Gipuzkoa), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera (2019/06/13).
- Ingurumen-klausulak kontratazio publikoan txertatzerakoan egin ohi diren okerrei eta horiek saihesteko moduari -kontratazio hobetzeko- buruzko jardunaldi teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen lankidetzarekin (2019/11/21).
- Kontratazio publiko berdeari buruzko 2 tailer Donostiako Udalarentzat (tailer berbera gaztelaniaz eta euskaraz)(2019/10/25 eta 28).

Gainera, Ihobek parte hartu zuen HAEEk antolatutako "EUROPATIK DATORKIGU-ETA: XXI. mendeko kontratazio publiko estrategikoa" ikastaroan (2019/11/14).





3 Adierazleen konputurako, prestakuntza-eskaintza kalkulatzen da Ihobek berak eskainitako/emandako ikastaroak/tailerrak erreferentziatzat hartuta. Beraz, konputu horretan ez dira kontuan hartzen HAEEk antolatutako ikastaroak.

| 9. JARDUERA | Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Eskainitako prestakuntza-ikastaroak, urtez urte eta guztira. |
| | **8 prestakuntza-ikastaro** eskaini dira.<br>(8 ikastaro 2016an + 6 ikastaro 2017an + 15 ikastaro 2018an + 8 ikastaro 2019 = 37 guztira). |
| | Prestakuntza-ikastaroetako parte-hartzaileen kopurua. |
| | **286 pertsona** aurten.<br>(232 pertsona 2016an + 252 pertsona 2017an + 372 pertsona 2018an + 286 pertsona 2019an = 1142 guztira). |
| | Jasotako prestakuntza modu positiboan baloratu duten parte-hartzaileen %. |
| | Eskuratu ditugun datuen arabera, parte-hartzaileen % 100ek modu positiboan baloratu du jardunaldia.<br>Ulertzen da jardunaldiaren balorazioa positiboa dela puntuazioa 6,67tik gorakoa bada, jardunaldiaren gogobetetasun globala erreferentziatzat hartuta. |

## 10. JARDUERA

## Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea

**1. EKINTZA:** erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko autoikaskuntzarako material espezifikoa.

Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko oinarrizko ezagutza haren aplikazio autonomorako eskuratzeari begira, autoikaskuntzako materialak 2018an garatu ziren, eta Programari atxikitako erakunde berri guztiei ematen zaizkie atxikimenduaren unean.




| 10. JARDUERA | Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Garatutako moduluen kopurua. |
| | Autoikaskuntzarako **8 modulu prestatu** dira (2018an). |
| | Moduluetan parte hartu duten parte-hartzaileen kopurua. |
| | Oraingoz ez dago aurreikusita ezein prestakuntza-ikastarorik antolatzea, zeren materialak autoikaskuntzarako baitira. |

## 11. JARDUERA

### Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea

**1. EKINTZA:** “Euskadin EKPBarekin bat egiteko gakoak” dokumentua.

Programari atxikita dauden eta -hortaz- erosketa berdearekin konprometituta dauden erakundeen kopurua handitzeko xedez, erosketa berdearen onurak, Programari atxikitzearen abantailak eta atxikimendurako egin beharreko urratsak jasotzen dituen dokumentu bat argitaratu da:
**http://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadin-erosketa-publiko-berdearekin-bat-egiteko-gakoak ;**




| 11. JARDUERA | Balioa nabarmentzeko eta sentsibilizaziorako ekintzak gauzatzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Egindako sentsibilizazio-ekintzen kopurua. |
| | Jarduera bat gauzatu da. |
| | Gidaliburuko taldeetatik, fitxa laburrak dituzten taldeen kopurua eta % (Laburpen-fitxa). |
| | Gidaliburuko taldeen % 100. |

## 4. LERRO ESTRATEGIKOA
# MERKATUAREKIN KOORDINATZEA

### 12. JARDUERA
**Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte harraraztea**

2019an ez da inolako jarduerarik gauzatu, zeren ez baita irizpide berririk garatu, ezta lehendik zeudenak berraztertu ere.

### 13. JARDUERA
**Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea**

2019an ez da inolako jarduerarik gauzatu.

### 14. JARDUERA
**Berrikuntza ekarriko duten erosketa-prozesuan parte-hartzen laguntzea**

2019an ez da inolako jarduerarik gauzatu.

### 15. JARDUERA
**Prestakuntza-ikastaroak garatzea hornitzaileentzat**

2019an ez da inolako jarduerarik gauzatu.

.

## 5.LERRO ESTRATEGIKOA
# KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA

### 16. JARDUERA
### Hedapen-ekintzak maiz egitea

**1. EKINTZA:** Erosketa publiko berdearen joerei buruzko 4 txosten argitaratzea.
2019an, erosketa publiko berdearen joerei buruzko 4 txosten prestatu dira **www.ihobe.eus** webgunean. Txostenak urtean zehar argitaratu dira, azkena izan ezik, berau 2020ko urtarrilean argitaratu baita.

**2. EKINTZA:** 5 albiste argitaratzea.
2019an, erosketa publiko berdeari buruzko 5 albiste argitaratu dira **www.ihobe.eus** webgunean.

**3. EKINTZA:** 5 informazio-ohar hedatu dira Programari atxikitako erakundeen artean.
2019ko urrian, trukerako talde birtual bat ezarri zen atxikitako erakundeekin, eta beraren bitartez 5 komunikazio bidali dira.

| 16. JARDUERA | Hedapen-ekintzak maiz egitea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Gauzatutako hedapen-jardueren kopurua. |
| | 14 jarduera gauzatu dira. |

### 17. JARDUERA
### Jardunbide egokien berri ematea

**1. EKINTZA:** 2 jardunbide egoki prestatu dira.
2019an, honako jardunbide egoki hauek garatu dira:

- Ingurumen-irizpideak txertatzea **Debabarrena Osasun Erakunde Integratuaren (OEI)** garbiketa-zerbitzuan.
- Ingurumen-irizpideak txertatzea **Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiako** edari eta aperitiboak saltzeko makinetan.

Gainera, 2018an landutako jardunbide egoki bat argitaratu da.
Jardunbide Egokiak lantzeaz gain, Joerei buruzko Txostenetan egiten diren aipamenak ere hartu behar dira kontuan. Txosten horietan, berariazko atal bat dago euskal administrazioaren eta beste eremu geografiko batzuetako administrazioen lan ona aitortzeko.

| 17. JARDUERA | Jardunbide egokien berri ematea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Argitaratutako jardunbide egokien kopurua (urtez urte eta guztira). |
| | 2019an 3 jardunbide egoki argitaratu dira (2016 eta 2019 bitartean, 10 jardunbide egoki eta bikaintasun-kasu argitaratu dira). |

## 18. JARDUERA

## Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea

**1. EKINTZA:** 2019ko emaitzen txostena prestatzea, gero argitaratzeko.

| 18 . JARDUERA | Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Argitaratutako emaitza-txostenen kopurua. |
| | 4 txosten prestatu dira 2016, 2017, 2018 eta 2019rako. |




## 19. JARDUERA

## Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea

**1. EKINTZA:** “El Diamante de la Compra” AERCE sariak.

2019ko edizioan, Erosketa, Kontratazio eta Horniduren Profesionalen Espainiako Elkarteak (AERCE) ematen duen “El Diamante de la Compra” saria –Sektore Publikoaren kategorian- Eusko Jaurlaritzarentzat izan da, hain zuzen ere ingurumen-irizpideak dituzten erosketa eta kontratazioak bere sektore publikoan sustatzeko eta normalizatzeko gauzatzen ari den ekimenarentzat. Ekimen hori Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen programaren bitartez egituratzen da, eta baita euskal sektore publikoko erakundeak berari atxikitzearen bidez ere.





**2. EKINTZA:** Procura+ sariak.

Eusko Jaurlaritzaren erosketa Publiko Berdearen 2020rako Programaren hedapena Procura+ Sarietako urteko ekimenen artean ere aitortua izan da –ICLEIren sare bat da, Europa osoko erakunde publikoak biltzen dituena-.



European Commission

GPP In practice

Issue no. 91
September 2019

From the tap:
replacing single-use water containers with glass in the Basque Country, Spain

Mutualia (Basque Country, Spain)

Background

Mutualia is a provider of social services and medical care, which is subject to EU public procurement laws. It collaborates with the Spanish social security system and operates 17 social and medical service centres in the Basque country, Spain. The organisation aims to reduce its environmental impact by reducing plastic waste, while also spending public funds in the most economical way.

Image: Pixabay / Jason Gillman

Mutualia is a participant of the Basque GPP Programme and is committed to green their procurement practices. So far, 70% of Mutualia's tenders include environmental criteria and the organisation aims to increase this number and introduce environmental criteria in future tenders.

Until recently, drinking water was provided in all facilities by water fountains which dispensed water from large plastic bottles (11 litres) into single-use plastic cups. In addition, patients also received bottled water with their meals and Mutualia provided bottled water during meetings. This led to high expenditures on mineral water on the one

**3. EKINTZA:** 4 euskal jardunbide egoki Europako eta nazioarteko dokumentuetan.

Guztira, euskal erakunde publikoen 4 jardunbide egoki sartu dira Europako eta nazioarteko dokumentuetan; adibidez: Europako Batzordearen erosketa berdeko jardunbide egokien bilduman (Mutualiaren kasua), eta erabilera bakarreko plastikoen problematikari kontratazio publikoaren bidez heltzeko jarraibide politikoei buruzko dokumentu batean, Nazio Batuen Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarrietarako Eskualde Zentroarena (kasu hauek: Mutualia, Barrualde-Galdakao OEI, Zumarragako Ospitalea eta Donostiako Udala).

**4. EKINTZA:** Euskal EKPBaren berri ematea hirugarrenek antolatutako 2 ekitalditan.

2019an, Ihobek 2 ekitalditan parte hartu du –gehienak Euskaditik kanpoko erakundeek antolatuak- euskal ikuspegi eta esperientziak aurkezteko. Honako hauek izan dira:

- Kantabriako Udalerri Jasangarrien Mankomunitateak antolatutako "Udalerriak Ekonomia Zirkularraren erronken aurrean" II. JARDUNALDIAN parte hartzea.
- Granadako Diputazioak antolatutako "Bizi-zikloaren Kostua: Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko Legearen aukera bat" jardunaldian parte hartzea.

| 19. JARDUERA | Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea |
|---|---|
| JARRAIPEN ADIERAZLEA | Gauzatutako jarduera kopurua. |
| | 6 jarduera gauzatu dira. |

# 4 ERANSKINAK

## I. ERANSKINA: INGURUMEN-IRIZPIDEEK LIZITAZIOETAN DUTEN TXERTATZE MAILA, ERAKUNDE PUBLIKO MOTAREN ARABERA BANAKATUTA

| Erakunde publiko mota | Erosketa berdearen % (kopurua) | Erosketa berdearen % (EUR) |
|---|---|---|
| **Tokiko erakundeak eta haien sektore publikoa** | **% 29** | **% 29** |
| Udala | % 29 | % 35 |
| Koadrilla | % 19 | % 20 |
| Administrazio Batzarra | % 50 | % 47 |
| Mankomunitatea | % 48 | % 13 |
| Tokiko sektore publikoa | % 26 | % 20 |
| **Foru erakundeak eta haien sektore publikoa** | **% 17** | **% 24** |
| Foru Aldundia | % 18 | % 25 |
| Batzar Nagusiak (Forala) | % 0 | % 0 |
| Sektore publiko forala | % 18 | % 23 |
| **Eusko Jaurlaritza eta haren sektore publikoa** | **% 16** | **% 12** |
| Eusko Jaurlaritza | % 15 | % 21 |
| Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa | % 16 | % 8 |
| **Beste batzuk** | **% 38** | **% 57** |

## II. ERANSKINA: PROGRAMAREN TRAKZIO-TALDEAREN PARTAIDE DIREN SAILAK ETA SOZIETATEAK

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
- Ogasun eta Ekonomia Saila
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila
- Segurtasun Saila
- Hezkuntza Saila
- Osasun Saila
- Osakidetza
- Visesa
- EiTB
- Eusko Trenbideak

## III. ERANSKINA: 2019KO AMAIERARA ARTE PROGRAMARI ATXIKITAKO ERAKUNDEAK

1. Abanto-Zierbenako Industrialdeak, S.A.
2. Arabako Industrialdea, S.A.
3. Arratiako Industrialdea, S.A.
4. Barakaldoko Udala
5. Bergarako Udala
6. Bilboko Udala
7. Donostiako Udala – Tokiko Agenda 21 eta Klima Aldaketa Zerbitzua
8. Eibarko Udala
9. Legazpiko Udala
10. Gasteizko Udala
11. Beterri Kostako Industrialdea, S.A.
12. Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A.
13. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A.
14. Guardia-Arabako Errioxa Koadrilla
15. Deba Bailarako Industrialdea, S.A.
16. Gipuzkoako Foru Aldundia
17. Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
18. Euskal Irrati Telebista (EITB)
19. Goierri Beheko Industrialdea, S.A.
20. Santa Marina Ospitalea
21. Ihobe
22. Itelazpi, S.A.
23. Mutualia-Donostia
24. Osakidetza-Servicio Vasco de Salud Barrualde Galdakao OEI
25. Osakidetza-Servicio Vasco de Salud Goierri Urola Garaia OEI
26. Eusko Legebiltzarra
27. Euskalduna Jauregia
28. Sprilur,S.A.
29. Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A.
30. Udalsarea 21
31. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L.
32. URA Uraren Euskal Agentzia
33. Urdulizko Industrialdea
34. Urolako Industrialdea S.A.
35. Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (VISESA)

# IV. ERANSKINA: 2019KO JARDUEREN LABURPENA

| 1.LE: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK | |
|---|---|
| **1. JARDUERA**<br>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu praktikoa eguneratzea eta osatzea. | **1.** Lehentasunezko 7 produktu/zerbitzu kategorien irizpideak eguneratzea. |
| **2. JARDUERA**<br>Ereduzko pleguen proposamenak egitea. | **2.** 2 ereduzko plegu identifikatzea. |
| **3. JARDUERA**<br>Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea. | **3.** Bizi-zikloaren kostuak erosketa publikoan aztertzeko lan-talde pilotua.<br>**4.** Europako Batzordearen bizi-zikloaren kostuen tresnak itzultzea.<br>**5.** BILERA-JARDUNALDIA: Bizi-zikloaren kostuan kontratazio publikoan sartzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiak.<br>**6.** "Ekonomia Zirkularrerako Erosketa Publikoa" txostena.<br>**7.** "Klima-aldaketaren aurkako borrokarako Erosketa Publikoa" txostena.<br>**8.** Erosketa Berdea URBAN Klima proiektuan. |
| **4. JARDUERA**<br>Laguntza tekniko pertsonalizatua eskaintzea. | **9.** Ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko 130 kontsulta egin dira. |

| 2.LE: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRAZEA | |
|---|---|
| **6. JARDUERA**<br>Dauden kontratazio-eredu eta -tresnak berrikustea. | **10.** Euskadiko kontratazio publikoaren plataforma aldatzeko proposamena. |
| **8. JARDUERA**<br>Erosketa publiko berde zentralizatua sustatzea. | **11.** Ingurumen-irizpideak erosketa-zentralen lizitazioetan txertatu dira. |

| 3.LE: PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA | |
|---|---|
| **9. JARDUERA**<br>Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea. | **12.** 8 jardunaldi tekniko egin dira. |
| **11. JARDUERA**<br>Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea. | **13.** "Euskadin EKPBarekin bat egiteko gakoak" dokumentua. |

| 5.LE: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA | |
|---|---|
| **16. JARDUERA**<br>Hedapen-ekintzak maiz egitea. | **14.** Erosketa publiko berdearen joerei buruzko 4 txosten argitaratu dira.<br>**15.** Erosketa publiko berdeari buruzko 5 albiste argitaratu dira.<br>**16.** 5 informazio-ohar hedatu dira Programari atxikitako erakundeen artean. |
| **17. JARDUERA**<br>Jardunbide egokien berri ematea. | **17.** 2 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu prestatu eta argitaratu dira. |
| **18. JARDUERA**<br>Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea. | **18.** 2019ko emaitzen txostena prestatu da. |
| **19. JARDUERA**<br>Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea. | **19.** "El Diamante de la Compra" AERCE sariak.<br>**20.** Procura+ sariak.<br>**21.** Lau euskal jardunbide egoki 2 nazioarteko dokumentutan hedatu dira.<br>**22.** Euskal EKPBaren berri eman da hirugarrenek antolatutako 2 ekitalditan. |

# V. ERANSKINA: 2016, 2017, 2018 ETA 2019KO JARDUEREN LABURPENA

| 1.LE: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK | |
|---|---|
| **1. JARDUERA**<br>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu praktikoa eguneratzea eta osatzea. | **1.** Kapituluaren garapena, eta irizpideak 4 produktu multzotarako: Hondakinen kudeaketa eta Bide-garbiketa, Autobus-garraio publikoa, Energia-hornidura eta instalazioak Hori eginda, Programan lehenetsitako produktu kategoria guztiek badituzte ingurumen-irizpideak.<br>**2.** Ingurumen-irizpide sinplifikatuak landu dira 14 produktu kategoriarentzat; beraz, hori garrantzitsua den kasu guztietan, produktuek badituzte irizpide sinplifikatuak.<br>**3.** Erosketa berdearen irizpideak berrikusi eta eguneratu dira gidaliburuko 10 produktu multzotarako: Argitalpenak, Ibilgailuak, Eraikuntza, Ordenagailuak, Inprimatze-ekipoak, Eraikinen garbiketa, Salmenta-makinen zerbitzua, Catering zerbitzu puntuala, Jantoki-zerbitzua eta Lorezaintza (horietako batzuk webgunean argitaratu gabe daude oraindik ere).<br>**4.** ERAS tresnaren aplikatibo informatikoa garatu da, Eraikuntza eta Birgaitze Jasangarriaren Gidak aplikatzeko.<br>**5.** **www.ihobe.eus** webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala berriztatu da. |
| **2. JARDUERA**<br>Ereduzko pleguen proposamenak egitea. | **1.** Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian sartzen dituzten produktu/zerbitzuak kontratatzeko pleguen 7 adibide erreal, lehenetsitako produktu/zerbitzuei dagozkionak. |
| **3. JARDUERA**<br>Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea. | **1.** Pilotu bat egin da Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren alorrean.<br>**2.** Berrikuntzaren Erosketa Publikorako Ideien Koadernoa egin da.<br>**3.** Erosketa Publiko Berderako eta Bizi-zikloaren Kostuen Azterketarako Gida egin da.<br>**4.** Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan sartzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko bi jardunaldi-bilera antolatu dira.<br>**5.** Bizi-zikloaren kostuak euskal administrazioaren ordenagailu eta monitoreen erosketan erabiltzeari buruzko lan-talde pilotu bat abiatu da.<br>**6.** Europako Batzordearen bizi-zikloaren kostuen tresnak itzuli dira.<br>**7.** Ekonomia Zirkularrerako Erosketa Publikoari buruzko jardunaldia antolatu da.<br>**8.** Kontratazio zirkularrerako Ideien Koadernoa prestatu da: nola sustatu ekonomia zirkularra erosketa eta kontratazio publiko berdearekin. |

| | |
|---|---|
| | **9.** "Ekonomia Zirkularrerako Erosketa Publikoa" txostena egin da.<br>**10.** "Klima-aldaketaren aurkako borrokarako Erosketa Publikoa" txostena egin da.<br>**11.** Erosketa berdea URBAN Klima proiektuan sartu da. |
| **4. JARDUERA**<br>Laguntza tekniko pertsonalizatua eskaintzea. | **1.** Erantzuna eman zaie ingurumen-irizpideak txertatzeko 386 eskariri.<br>**2.** Ingurumen-klausulak txertatu dira 24 kontratazio-jarraibide/-prozeduratan.<br>**3.** Erosketa berderako 3 jarraibide/prozedura lantzeko laguntza eman da.<br>**4.** Eraikuntza eta Edifikazioaren Instituzio arteko Mahaia kudeatu da.<br>**5.** Prestakuntza-jardunaldiak eman dira Gasteizko Udalarentzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat.<br>**6.** Sektore publikoko kontratuen Lege berriari buruzko txosten juridiko bat prestatu da. |
| **5. JARDUERA**<br>Produktu eta zerbitzuetarako garatutako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea. | **1.** Zuzeneko erosketarako 13 fitxa landu dira (Programaren lehentasunezko produktuen gainerako multzoetarako ez da egokitzat jotzen horrelako fitxak egitea; izan ere, hori garrantzitsua den produktu guztien kasuan badaude zuzeneko erosketako fitxak, 1. Jardueraren baitan eguneratzen direnak). |

| **2.LE: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRAZEA** | |
|---|---|
| **6. JARDUERA**<br>Dauden kontratazio-eredu eta -tresnak berrikustea. | **1.** Euskadiko Kontratazio Plataforma aldatzeko proposamena (amaitu gabe).<br>**2.** Erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak eraikuntza sektorean kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko tresna bat landu da.<br>**3.** Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2/2018 Gomendioa argitaratu da.<br>**4.** Aplikatibo bat garatu da ingurumen-irizpideak eraikuntza/edifikazioaren lizitazioetan kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko. |
| **8. JARDUERA**<br>Erosketa publiko berde zentralizatua sustatzea. | **1.** Euskal administrazio nagusien arteko topaketa erosketen zentralizazioa jorratzeko.<br>**2.** Arabako Foru Aldundiaren kontratazio-zentrala eratu da.<br>**3.** Ingurumen-irizpideak txertatu dira erosketa-zentralen lizitazio batzuetan. |

| 3. LE: PRESTAKUNTZA, TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA | |
|---|---|
| **9. JARDUERA**<br>Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea. | **1.** Gai honi buruzko 37 jardunaldi tekniko egin dira. |
| **10. JARDUERA**<br>Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea. | **1.** 7 modulu (diapositibak) landu eta argitaratu dira erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko autoikaskuntzarako.<br>**2.** Modulu horiek areagotu dira Programari atxikitako erakundeei 2019an emango zaizkien 8 moduluekin. |
| **11. JARDUERA**<br>Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea. | **1.** Egindakoaren balioa erakusteko eta sentsibilizaziorako 4 jardunalditan parte hartu da (Udalsarea 21ekin eta beste batzuekin).<br>**2.** Produktu multzoen 9 laburpen-fitxak eguneratu dira.<br>**3.** Erosketa berdeari buruzko materialetarako estekak jarri dira zenbait administrazioren kontratazio-webguneetan.<br>**4.** Ingurumen-eskaintze sustatzeko elkarrizketa bat argitaratu da.<br>**5.** “Euskadin EKPBarekin bat egiteko gakoak” dokumentua argitaratu da. |

| 4.LE: MERKATUAREKIN KOORDINATZEA | |
|---|---|
| **12. JARDUERA**<br>Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte harraraztea. | **1.** Ingurumen-irizpideak enpresa-sektorearekin kontrastatu dira 5 produktu kategoriatarako. |
| **14. JARDUERA**<br>Berrikuntza ekarriko duten erosketa-prozesuan parte-hartzen laguntzea. | **1.** Merkatuarekin elkarrizketatzeko jardunaldi bat egin da berrikuntza erosteari buruzko proiektu pilotuaren baitan.<br>**2.** PACE europar proiektuaren proposamenean parte hartu da. |
| **15. JARDUERA**<br>Prestakuntza-ikastaroak garatzea hornitzaileentzat. | **1.** 2 prestakuntza-jardunaldi egin dira enpresa-sektorearentzat. |

| 5.LE: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA | |
|---|---|
| **16. JARDUERA**<br>Hedapen-ekintzak maiz egitea. | **1.** EKPBaren material osora iristea ahalbidetzen duen Ihoberen webgunea berriztatu da.<br>**2.** Joerei buruzko 11 txosten argitaratu dira.<br>**3.** 28 albiste argitaratu dira.<br>**4.** Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko bideo bat argitaratu da.<br>**5.** 5 informazio-ohar hedatu dira Programari atxikitako erakundeen taldean. |
| **17. JARDUERA**<br>Jardunbide egokien berri ematea. | **1.** 2016az geroztik, ingurumen-bikaintasunaren alorreko 10 jardunbide egoki eta kasu landu eta argitaratu dira. |
| **18. JARDUERA**<br>Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea. | **1.** Emaitzei buruzko 4 txosten prestatu dira, 2016, 2017, 2018 eta 2019rako (bat ere ez da argitaratu). |
| **19. JARDUERA**<br>Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea. | **1.** Procura+ Kanpainan parte hartu da, erakunde bazkide gisa (txostengile gisa parte hartu da webinar batean, EcoProcura batzarrera joan da, albiste bat bidali da).<br>**2.** NBEren Erosketa Publiko Jasangarriaren Hamar Urteko Esparru Programari atxikitzea.<br>**3.** Euskal jardunbide egokiak sustatu dira Europako Batzordearen aldetik (2), NBEren aldetik (1), europar proiektuetan (1) edo Espainiako eta/edo nazioarteko beste instituzio batzuetan (4).<br>**4.** Euskal EKPBaren berri eman da hirugarrenek antolatutako 11 ekitalditan.<br>**5.** Erosketa eta kontratazio publiko berdearen hedapenaren aitortza ORU-Fogar Eskualde Batuen Erakundearen aldetik (2017), Procura+ Sarietan (2019) eta “El Diamante de la Compra” AERCE Sarietan (2019).<br>**6.** Topaketa Hego Koreako Ordezkaritzarekin (2017).<br>**7.** Autobusetarako irizpideak garatzeko lanean lortutako helburuak jakinarazi zaizkio Europako Batzordeari, 2016an. |

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA